



IRIZPEN ZK.: D17-017

IRIZPENA, EUSKAL HERRIKO ALDIZKARI OFIZIALEAN ARGITARATZEARI BURUZ EUSKO JAURLARITZAKO ABOKATUEN ESPEZIALITATEA EGIAZTATZEA ESKATZEKO AUKERA DUTEN LANGILE PUBLIKOEN ZERRENDA, ETA, HORREN OSTEAN, ESPEZIALITATEA EGIAZTATZEN DUTENEN ZERRENDA ERE ARGITARATZEA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko Zuzendaritzak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskabide idazkiak (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legearen xedapen gehigarrian eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 51. eta 52. artikuluek eta hirugarren xedapen gehigarriak xedatzen dutena aztertu eta gero) honako dio:

“(…) Adierazitako guztiarekin bat, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak prozedura bat jarriko du laster abian, Eusko Jaurlaritzako abokatuaren espezialitatea aitortzeko. Prozedura horren baitan egoki jotzen da publiko egitea espezialitatearen aitortza, EHAAn argitaratuz.

Hori ikusita, eta, nahiz eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikuluen arabera, izena eta abizenak ez izan bereziki babestutako datuak, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak ez du argi ea ondo ezkotzen den datu babesari buruzko araudiarekin EHAAn argitaratzea Eusko Jaurlaritzako abokatuaren espezialitatea aitortzeko prozesuak ukitutako langileen zerrenda osoa, NANarekin eta izena eta lehenengo eta bigarren abizenekin identifikatuta.

Zehatz esateko, honakoa galdetu nahi dugu:

1º. Bateragarria da datu-babesari buruzko araudiarekin EHAAn argitaratzea Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren ebazpen bat, eta bertan eranskin bat jasotzea Eusko Jaurlaritzako abokatuaren espezialitatearen aitortzea eskatzeko eskubidea duten langileen zerrendarekin, NANarekin eta izena eta lehenengo eta bigarren abizenekin identifikatuta?

2º. Bateragarri da datu-babesari buruzko araudiarekin EHAAn argitaratzea Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren agindu bat, eta bertan eranskin bat jasotzea Eusko Jaurlaritzako abokatuaren espezialitatearen aitortzea egiaztatzen duten langileen zerrendarekin, NANarekin eta lehenengo eta bigarren abizenekin identifikatuta?”.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:



“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datu pertsonalak babesteari buruzko ikuspegitik begiratuta, kontsultako bi galderei erantzun aurretik, komeni da hona ekartzea kontsulta egileak aipatutako araudia, Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea arautzen duena.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 17. artikulua honakoa xedatzen du Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiko langileei buruz:

“17. artikulua. – Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiko langileak.

1.– Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusia hari atxikitako abokatuak osatzen dute, baita laguntzako lanpostuak ere. Azken hauen kopurua eta antolamendua dagozkion arautegiek zehaztuko dituzte.

2.– Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiko abokatuen lanpostuak, lege honetan azaldutako eginkizunetan jardutekoak, bakar-bakarrik izango dira Jaurlaritzaren Kontseiluaren dekretuz sortuko den Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatua duten funtzionarioentzat.

3.– Funtzio publikora sartzeko deialdietan egiaztatuko da eskuarki Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea, proba espezifikoko batzuk gaindituta; proba horiek Zuzenbidearen adar guztietan –bereziki Zuzenbide prozesalean– ezagutza zabala eskatzen duen gai-zerrenda batean oinarrituko dira eta orekaz konbinatuko dituzte ariketa teorikoak eta praktikoak.

4.– Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea sortzeko dekretuak espezialitatea egiaztatzeko beste modu batzuk aurreikusi ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeko araudian aurreikusitako prozedurei jarraituz”.

Bestalde, 7/2016 Legearen xedapen gehigarriak arautzen du ondoko baldintzak betetzen dituzten Eusko Jaurlaritzako funtzionarioek ere, ohiz kanpo, Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatutzat joko zaiela:

*“Ohiz kanpo, Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatutzat joko zaie Eusko Jaurlaritzako Goi Mailako Teknikarien Kidegoko edo A-2ko Zuzenbide lizentziadunen aukerako karrerako funtzionarioei, baldin eta bost urtetik gorako antzintasuna badute kidego horretan, lege hau indarrean sartzen den unean, **eta horretarako behin bakarrik antolatuko den prozeduran asmo hori azaltzen badute**. Era berean, lege hau indarrean sartzen denerako gutxienez bost urtez kidego horretako lanpostuetan lanean ibili diren bitarteko funtzionarioei egiaztatutzat*



joko zaie espezialitate hori, funtzionario izatea lortzen dutenean horrela eskatzen badute”.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 51. artikulua Eusko Jaurlaritzako Abokatuen espezialitatea sortzen du; eta 52. artikulua espezialitatea nola egiaztatu behar den xedatzen du. Bestalde, hirugarren xedapen gehigarriak espezialitatearen xedapena arautzen du:

“51. artikulua. – Espezialitatea sortzea.

Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea sortzen da, goi-mailako teknikarien kidegoko edo A-2ko Zuzenbideko lizentziadunen aukeran; espezialitatearen eginkizunak izango dira Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legean halakotzat hartutakoak”.

“52. artikulua. – Espezialitatea egiaztatzea.

1.– Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatzeko, kontuan hartuko da hemen araututakoa: Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 17. artikuluko 3. zenbakia, baita Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu publikoari dagokion legezko antolamendu-araudian aurreikusitako espezialitateak egiaztatzeko prozedurak ere.

2.– Funtzio Publikoko arloaren ardura duen sailburuak agindu bidez aitortuko die Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea Eusko Jaurlaritzako A-2 goi-mailako teknikarien kidegoko karrerako funtzionarioei, Zuzenbideko lizentziadunen aukeran, espezialitatea egiaztatzeko prozedurak egiten badituzte”.

“HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. – Espezialitatearen xedapena.

*Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatzeko, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak behar den banakako eskaintza egingo du, **dekretua indarrean jarri eta 3 hilera, xedapen horretan aipatutako karrerako funtzionarioek adieraz dezaten espezialitate hori izan nahi duten.***

Banakako eskaintza bera egingo zaie, karrerako funtzionario bihurtzen direnean, bitarteko langile gisa espezialitatea egiaztatzeko aukera aitortuta duten bitarteko langileei, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen xedapen gehigarriarekin bat”.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak kontsultan dioenez, Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatzeko administrazio prozedura jarri nahi du abian, 144/2017 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko. Eta, administrazio kontsulta-egileak honakoa uste du: *“prozedura horren baitan egoki jotzen da publiko egitea espezialitatearen aitortza, EHAAn argitaratuz”*; eta horren arabera, aldizkari ofizialean argitaratuko da *“Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea aitortzeko prozesuak ukitutako langileen zerrenda osoa, NANarekin eta izena eta lehenengo eta bigarren abizenekin identifikatuta”.*

Administrazio kontsulta-egileak egindako galdera bien xedea da argitzea ea bateragarria den datuak babesteko araudiarekin EHAAn argitaratzea enplegatu publikoen zerrendak, hau da, abian jarri nahi duen prozeduraren bi faseetako bakoitzeko zerrenda bat: Prozeduraren hasierako fasean argitaratu nahi da espezialitatea egiaztatzeko legez eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten langileen zerrenda; eta prozeduraren azken



fasean argitaratu nahi da Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatu duten langile publikoen zerrenda, hain zuen ere, 7/2017 Legearen xedapen gehigarriaren bidez egiaztatu dutenena.

Aipatu dugun araudiari eta kontsultari erreparatzen badiogu, arreta deitzen duen kontu bat da 144/2017 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen dela baldintzak betetzen dituzten funtzionarioei banakako eskaintza egingo zaiela, baina administrazio kontsulta-egileak nahi du EHAA n argitaratu langile publiko horien zerrenda, NAN, izen, abizen eta guzti.

Banakako eskaintza aipatzen bada, badirudi izango dela administrazioa bana-banan zuzendu behar zaielako egiaztatze prozesuak ukitutako enplegatu publikoei; eta hori egitea itxura batean erraza da, kontsulta-egileak dioenez, ia langile guztien zerrenda dutelako; eta, gure ustez, administrazio horretan aktiboan daudenak izango dira.

II

Datu babesaren ikuspuntutik begiratuta, aztertuko dugu ea ondo ezkontzen diren administrazio kontsulta egilearen asmoa eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak.

Datu pertsonalak argitaratzea datuen tratamendu bat da; hain zuzen ere, datu lagatzetat edo datu komunikatuetat jotzen da, DBLOren 3 i) artikulua ematen duen definizioaren arabera:

“Interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”.

Datu-lagatzeen edo datu-komunikazioen lehenengo ezaugarri berezia da fitxategiaren arduradunak interesduna ez den hirugarren bati jakinarazi nahi dizkiola zenbait datu. Eta bigarren ezaugarri berezia da datu-tratamendu bidez jakinarazten zaizkiela hirugarrenei datuak.

Beraz, edozein datu pertsonal hirugarren baten eskura jartzea, datu-tratamendu baten bidez, datu-lagatzetat edo datu-komunikatuetat jo behar da, datu pertsonalak kontsultatzea eta argitaratzea barne; bai eta baliabide elektronikoen bidezko datu interkonexioa ere. Datu-lagatzea datu-transmisio bat da, hirugarren bati egiten zaiona, datu-tratamendu bidez, eta datu-hartzailea identifikatu beharrik gabe egiten dena. Gainera, datu-lagatzaileak egin behar du datu-tratamendua, eta datu-hartzaileak ez du zertan egin gerora datu pertsonalen beste tratamendurik. Ondorioz, esan behar da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean EHAA) datu pertsonalak argitaratzea, administrazio kontsulta-egileak nahi duen bezala, datu-lagatzetat jo behar dela.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 1.2 artikulua xedatzen duenez, zerbitzu publikoa da, unibertuala eta doakoa. Eta bertara sartzen denak bermatua du aldizkarian argitaratzen diren dokumentuak bilatu, kontsultatu, artxibatu eta inprimatzeko aukera. Edizio elektronikoen argitaratzea da, eta www.euskadi.eus egoitza elektronikoen bitartez zabaltze da (217/2008 Dekretuaren 3. artikulua).

Ez da ahaztu behar datu pertsonalak babesteko eskubidea sortu zela informazio pertsonala babestu ahal izateko tratamenduen aurrean; eta aldizkari ofizial batean



argitaratzea tratamendu masibo bat da. Datu-babesa norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eskubidea da, nire datuak nori dituen eta zertarako erabili nahi dituen jakitea; eta ahalmen multzo bat dakar berekin, fitxategiaren arduradunari portaera aktibo batzuk edo ezer ez egiteko beste batzuk ezartzeko. Datu pertsonalak argitaratzea ez da bakarrik hirugarren jakin bati datuak komunikatzea, hori baino gehiago da; izan ere, datuen titularrak galdu egiten baitu bere informazio pertsonalaren gaineko kontrola, ez dakielako nori eta zertarako dituen bere datuak.

Datu pertsonalen komunikazioen lege erregimena batez ere DBLOren 11. eta 21. artikuluetan dago jasota.

Kontsulta ikusita, 11. artikulua arituko gara hemen, 21. artikulua ez delako ezargarrira kasu honetan.

DBLOren 11. artikulua (*"Datuak lagatzea"*) honakoa xedatzen du:

"1. Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango honelako kasuetan:

a) Lege batek baimentzen badu lagapena".

Hain zuzen ere, datu pertsonalak komunikatu ahal izateko arau orokorrak dira, batetik, lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzenean lotutako helburuak betetzea, eta, bestetik, interesdunen adostasuna. Nahiz eta interesdunaren adostasuna ez izan beharrezkoa, lege batek ematen badu datuak lagatzeko baimena.

Artikulu hori oso ondo azalduta dago KAren 292/2000 Epaian: Epaia horrek honakoa dio:

"Datu pertsonalak biltzeko eta tratatzeko adostasuna (DBLOren 6. artikulua) adierazteko eskubideak ez du esan nahi datu horiek hirugarrenei lagatzeko baimena ere ematen denik; izan ere, norbere datuak hirugarrenei lagatzeko baimena datu babeserako oinarritzko eskubidearen edukiaren barruko ahalmen berezietako bat baita. Eta, beraz, datu horiek ezin zaizkio hirugarren bati laga datu bilketa egin zeneko helburua ez den beste baterako bada, nahiz eta helburuak bateragarriak izan (DBLOren 4.2 artikulua), hori eginez gero, beste batek dauzkalako datuak eta hori beste erabilera bat delako, eta, horretarako, interesdunaren adostasuna behar da. Adostasunaren ahalmenak duen muga bakarra dira konstituzioaren arabera funtsezkoak diren eskubideak eta ondasunak. Beraz, arrazoitua eta proportzionala izan behar du eta legez ezarria, datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubideak ez duelako bestelako mugarik onartzen".

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere gauza bera esan izan du:

"Ondorioz, datu-lagapen batek 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikulua babesa duela esateko, nahitaezkoa izango da lege batek zehaztea lagapenaren helmena eta helburua, alde batera utzita lege hori garatzen duen erregelamenduren batek ere gehiago zehatu dezakeela lagapena, beti ere legeak zehaztutako esparruaren barruan. Aitzitik, ez da nahikoa izango legeak lagapenaren gaineko arau orokor bat finkatzea, baina lagapenaren helburua, helmena edo hartzaileak zehaztu gabe, eta erregelamendu batek esan lezakeenaren menpe utzi".



Kontsulta honetan planteatutako kasuari dagokionez, ikusi behar dugu zer dioten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APEL) 45. eta 46. artikuluek administrazio egintzen argitalpenari buruz:

“45. artikulua. Argitalpena.

1. Administrazioaren egintzak argitaratu egin behar dira, prozedura bakoitzaren arauetan ezarrita badago, edo, eskumena duen organoaren iritziz, interes publikoak hala eskatzen badu.

*Administrazio-egintzak beti argitaratu beharko dira, **eta horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu**, honako kasu hauetan:*

a) Pertsona-multzo zehaztugabe bati zuzendutako egintza denean, edo, administrazioaren iritziz, interesdun bakar bati zuzendutako jakinarazpenak denei jakinarazi zaiela bermatzen ez duenean; azken kasu horretan, banakako jakinarazpenaren osagarri izango da argitalpena.

b) Edozein motatako hautaketa-prozesu edo norgehiagoka-prozeduretako egintzak direnean. Kasu horietan, prozeduraren deialdian esan beharko da zer hedabidetan argitaratuko diren jakinarazpenak aurrerantzean; handik kanpo egindako jakinarazpenek ez dute baliorik izango.

2. Egintza bat argitaratzean ere jaso beharrekoak dira 40.2. artikuluan jakinarazpenetarako eskatzen diren zehaztasun guztiak. Artikulu beraren 3. zenbakiak ezarritakoa ere aplikatzekoa da argitalpenean.

Zenbait elementu komun dituzten egintzak argitaratzean, batera argitaratu ahal izango dira elementuok, eta egintza bakoitzari dagozkion parte berezia bakarrik zehaztu.

3. Jakinarazi beharreko egintza, zein administrazioetatik datorren, hari dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko da.

4. Hargatik eragotzi gabe 44. artikuluan xedatutakoa, lege- edo erregelamenduxedapen batengatik iragarki-taula edo ediktuetan argitaratu beharreko egintza eta komunikazioen argitalpena egintzat emango da dagokion aldizkari ofizialean argitaratzearekin”.

“46. artikulua. Jakinarazpen eta argitalpenen abisua.

Organo eskudunaren iritziz egintza bat iragarki bidez jakinarazteak edo hura argitaratzeak kalte egiten badie eskubide edo interes legitimo batzuei, soil-soilik egintzaren edukiaren berri labur bat argitaratuko du dagokion aldizkari ofizialean, eta hartan adieraziko du interesdunek nora jo dezaketen, ezartzen den epean, eduki osoaren berri jakiteko eta jakinaren gainean daudela jasoarazteko.

Horrez gain, aukerako moduan, administrazio publikoek beste jakinarazpen-modu osagarri batzuk ezar ditzakete, gainerako hedabideen bitartez; horrek ez ditu salbuetsiko dagokion aldizkari ofizialean argitaratzeko betebeharretik”.

Baina, kontsultan aipatzen den argitalpena, alde batera utzita ukitutako langile publikoei egin behar zaien banan banako jakinarazpena, ez da ondo ezkontzen legez aurreikusitako gainontzeko kasuekin, honako arrazoiengatik:

- Alde batetik, jakinarazpenaren hartzaileak zein diren oso ondo zehaztuta dagoelako, kontsultak dioenez.



- Eta, bestetik, ez delako hautaketa-prozesu edo norgehiagoka-prozedura bateko egintzei buruzko kasu bat; aitzitik, kasu honetan gertatzen dena da zenbait legezko betekizun betetzen dituzten langile publikoei aukera ematen zaiela adierazteko ea Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea eskuratu nahi duten.

Aurreko gogoetak ikusita, ondorioztatu behar dugu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea datuak, ukituen adostasunik gabe eta lege-gaikuntzarik gabe, ez datorrela bat datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 4a